

O PROCESSO Maria Augusta Ramos

# ZINEMA GAUR

2019ko udaberria | Primavera 2019

Maiatzaren 31tik uztailaren 1era arte
Del 31 de mayo al 1 de julio






Mursego

**Maiatzaren 31n (ostirala), 20:30ean | 31 de Mayo, viernes 20:30**
**ZINEMA GAUR, inaugurazioa: Virginia García del Pino eta Mursegoren film-kontzertua**
**Inauguración de ZINEMA GAUR: Cine Concierto de Mursego y Virginia García del Pino**

## RESPIRAR, CORRER, MIRAR

Proiekzioa jatorrizko soinu-bandarekin. Mursegok konposatua eta zuzenean interpretatua filmerako. “RESPIRAR, CORRER, MIRAR”, Virginia García del Pino (Espainia, 2018). 23 min
Proyección con banda sonora original compuesta e interpretada en directo por Mursego, para: RESPIRAR CORRER MIRAR, de Virginia García del Pino, España, 2018, 23’

### Sinopsia

ARNASA HARTZEA guri atxikita dagoen ekintza da, oharkabekoa, baina ezinbestekoa. Bizirik gaudela esan nahi du. Arnasa hartzea dena da, nolabait esateko. BEGIRATZEA ere guri atxikita dagoen ekintza da. Ez da —arnastea bezala— hil edo biziko kontua, eta konplexuagoa da, modu desberdinak baitaude begira aritzeko: zeharka begira, arretaz begira, eta begien aurrean duguna ikusi gabe begira. Ikusmena da nagusi gure bizitzetan. Begiratzeko argia besterik ez dugu behar, pelikulak existitzeko ezinbesteko osagaia. KORRIKA EGITEA borondatezko ekintza da, gainerako biak distortsionatzen dituena. Korrika goazenean airea falta zaigu, eta distortsionatu egiten da munduaz dugun ikuskera; plano finkoak travelling bihurtzen dira, eta gure entzumenak sumatu egiten ditu bihotz taupadak. Korrika egitea zinea egitea da. Korrika egiten duenarentzat ez ezik, korrika doanari begira ari zaionarentzat ere bai. Nora doa hain azkar? Zer gertatzen ari ote zaio? Trena galduko du? Norbait du atzetik segika?

### Sinopsis

RESPIRAR es algo que nos viene dado, es un verbo tan involuntario como necesario, significa que estamos vivos y podríamos decir que respirar, ya lo es todo. MIRAR también viene dado, no es vital como respirar y es algo más complejo, podemos mirar de soslayo, mirar atentamente y mirar sin ver lo que tenemos delante de los ojos. La visión reina sobre nuestras vidas. Para mirar solo necesitamos luz, elemento indispensable para que existan las películas. CORRER es un acto voluntario que distorsiona los otros dos. Cuando corremos nos falta el aire y nuestra mirada sobre el mundo se distorsiona, los planos fijos se convierten en travellings y el sonido del corazón se hace presente en nuestros oídos. Correr es cine. Lo es para el que corre y lo es para los que miran al que corre. ¿Dónde va tan deprisa? ¿Qué le estará pasando? ¿Pierde el tren? ¿Le persigue alguien?





## BEGIRATZEN IKASTEA

**Ekainaren 1ean eta 2an**
**(larunbata eta igandea)**
**Dokumentalak egiteko lantegia,**
**Virginia García del Pinoren eskutik.**
**10:00 - 14:00**

Dokumentalak egiteko ikastaro praktikoa; hausnartzeko nola begiratzen dugun ikusi gabe, eta ikasteko aurrean dugunari begiratzen. Zenbait ariketaren bidez ikasleekin eztabaidatuko da ea oraindik geratzen den zerbait begiratzeke, eta ea dakigun gauzei ondo begiratzen. Errealizadoreei, ikasleei eta dokumentalen generoan interesa duten pertsona guztiei zuzendua.

### Bio

Zinema-zuzendaria eta UABko sorkuntza-dokumentalei buruzko Masterreko irakaslea; 2008an zenbait sari jaso zituen “Lo que tú dices que soy” lanagatik. Beraren lehenengo film luzea (“El Jurado”, 2012) jaialdi garrantzitsu batzuetako atal ofizialean sartu zen. 2013an, Márgenes jaialdiak bararen obraren atzera begirako erakusketa egin zuen. 2014an, Cineuropak foko bat dedikatu zion bararen obrari. Beraren azken filma (“La 10ª carta”, 2014) Basilio Martín Patino zinemagile entzutetsuaren erretratua da; Donostiako Zinemaldian estreinatu zen.

## APRENDER A MIRAR

**1 y 2 de Junio, sábado y domingo**
**Taller de realización documental impartido por Virginia García del Pino**
**10:00- 14:00**

Curso práctico de realización documental para reflexionar sobre cómo miramos sin ver y aprender a mirar lo que tenemos delante. A través de unos ejercicios de guión y realización se debatirá con los alumnos si quedan cosas por mirar y si sabemos mirarlas bien. Dirigido a realizadores, estudiantes y personas interesados en el género documental.

### Bio

Directora de cine y profesora en el Máster de documental creativo de la UAB, en 2008 recibe varios galardones por “Lo que tú dices que soy”. Su primer largometraje, “El Jurado” (2012), entra en sección oficial en importantes festivales. En 2013, el festival Márgenes hace una retrospectiva de su obra. En 2014, Cineuropa dedica un foco a su obra. Su última película, “La 10ª carta” (2014), estrenada en el Festival de San Sebastián, es un retrato del consagrado cineasta Basilio Martín Patino



Ekainaren 3an – 3 de junio, 19:30

## LA DÉCIMA CARTA

**Virginia García del Pino. 2014.**
**Espainia/España. 71 min.**

Basilio Martín Patinok 9 gutun igorri zizkion Bertari 1966an. Ia 50 urte geroago, Virginia García del Pino saiatu da hamargarrena idazten Patinoren beraren arauari jarraituz, "egin beharrekoari buruzko agindu guztiak alde batera utzi". Berak eta Basilio Martín Patinok partekatutako gutuna; ihesi doan identitate baten erretratua, zeinean aztertzen baita zer geratu den 1966an Bertari idazten zion ikasle menderakaitz hartatik, zinemagile-ibilbide bikaina izan ostean.

Basilio Martín Patino mandó en 1966 nueve cartas a Berta. Casi cincuenta años después, Virginia García del Pino intenta escribir la décima, siguiendo la norma del propio Patino" olvidarse de toda preceptiva sobre lo que se deba hacer". Una carta compartida entre ella y Basilio Martín Patino, el retrato de una identidad en fuga que indaga qué queda de aquel estudiante rebelde que escribía a Berta en 1966, después de una brillante trayectoria como cineasta.



Ekainaren 10ean – 10 de junio, 19:30

## ALANIS

**Anahí Berneri. 2017. Argentina. 82 min.**

Alanis prostituzioan aritzen zen; haur txiki baten ama zen, eta apartamentu txiki bat partekatzen zuen Gisela bere kidearekin. Behin, polizia etxean indarrez sartu, eta Gisela atxilotu zuen; berak eta haurrak kalean bizitzen amaitu zuten. Gertaera horren ondorioz, senide baten etxean hartu du babes Alanisek, eta borrokatu du bizitza hobea lortzeko. Zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zuen 2017an.

Zinemagilearekiko bideo-hitzaldia

Alanis se dedica a la prostitución, es madre de un bebé y comparte un pequeño apartamento con su compañera Gisela. Un día, la policía irrumpe en su casa, detiene a su amiga y ella y su hijo acaban viviendo en la calle. A raíz de ese suceso, Alanis se refugia en el domicilio de un familiar y lucha por conseguir una vida mejor. Ganadora de la Concha de Plata a la mejor directora 2017.

Video-conferencia con la cineasta.







Ekainaren 17an - 17 de junio, 19:30

## O PROCESSO

**Maria Augusta Ramos. 2018. Brasil. 140 min.**

Dilma Rousseff kargugabetzeko prozesuaren anatomia, pausuz pausu disekzionatuta, uler dezagun nolako irregulartasun nabarmenak izan zituen prozesuak, zeina askok argi eta garbi jo baitute Brasilen ekonomia-politika erabat aldatzeko helburua zuen estatu kolpetzat. Amaiera zoriontsurik gabeko thriller politiko liluragarria.

Anatomía del proceso de destitución contra Dilma Rousseff, diseccionado paso a paso para comprender las notorias irregularidades de lo que muchos consideran abiertamente como un golpe de estado, destinado a virar radicalmente la política económica de Brasil. Fascinante thriller político sin final feliz.



Ekainaren 24an – 24 de junio, 19:30

## OJO GUAREÑA

**Performance-proiekzioa**
**Proyección performance**

Espeleologo-talde bat Ojo Guareña izeneko kobazulora sartu da. Espazioaren mugak lausoak agertzen dira, eta gizakien ahotsak jatorri ezezaguneko islatze, erreberberazio gisa iristen zaizkigu. Azkenean, ez dakigu oso ongi gu ote gauden kobazulora begira ala kobazuloa guri begira ote dagoen.

Un grupo de espeleólogos se adentra en una cueva llamada Ojo Guareña. Los límites del espacio aparecen difusos y las voces de los humanos nos llegan como una reverberación de origen incierto. Al final, no sabemos muy bien si somos nosotros los que miramos la cueva o si por el contrario, es la cueva la que nos está mirando.



**Uztailaren 1ean – 1 de julio**

## EL ÚLTIMO VERANO

**Leire Apellaniz. 2016. Euskal Herria. 93 min.**

"El último verano" filmak aldi berean ditu berez den dokumentuaren pisu materiala, eta fikzio epiko baten ukitu lirikoa; horrek, galtzaile etsiaren figuran aurkitzen du ziklo baten amaieraren iragarritako drama. Etortzekoa zela ikusten zena kontatzen du, malenkoniarik gabe. Istorioa, ezin sinpleagoa bera, Miguel Angelen istorioa da: Espainiako herrietan 35 mm-ko proiekzioak programatzen dituen galzoriko piztia teknokratikoa. Filma, baina, barrutik argitzen du edertasun forentse batek, zeinak erakusten baitigu ibilgetu zen mundu baten inbentario museografiko eta ahozkoa: xenon-lanparak, Maltako gurutzeak, bobinak, lotailuak... Ikusi eta izendatzen den gauza bakoitza, azken aldiz da ikusia eta izendatua. Azken agur horretan, jada itzuliko ez denaren lehenengo oroigarri filmatua da "El último verano".

Zinemagilea bertan egongo da.

El último verano tiene el peso material del documento que es y el aire lírico de una ficción épica, que encuentra en la figura del perdedor resignado, el drama anunciado de un fin de ciclo. Lo que se cuenta sin melancolía es aquello que se veía venir. La historia, que no puede ser más sencilla, es la de Miguel Ángel, una bestia tecnocrática en extinción que programa proyecciones en 35mm por pueblos de España. Pero lo que ilumina la película por dentro es la belleza forense con que se nos muestra el inventario museográfico y verbal de un mundo que dejó de andar: lámparas de xenón, cruces de Malta, bobinas, empalmadoras. Cada cosa que se ve y se nombra, se ve y se nombra por última vez. En esa despedida, "El último verano" es el primer recuerdo filmado de lo que ya no vuelve.

Con presencia de la cineasta.



**Argitaratzailea | Edita:**
Centro Cultural Montehermoso Kulturunea.
Vitoria-Gasteizko Udala / Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

**Disenua eta maketazioa | Diseño y maquetación:**
Udaleko Komunikazio Zerbitzua | Servicio Municipal de Comunicación

**Itzulpena | Traducción:**
Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua

Lantegietan izena ematea/ Inscripciones: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org. 945 16 18 30

VITORIA GASTEIZ green capital

montehermoso

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala